# BIDAIA LUZEA

Testua: **DANIEL HERNÁNDEZ CHAMBERS**

Irudiak: **FEDERICO DELICADO**

Itzulpena: **LUIGI ANSELMI**


Kartoi gogorrezko azala. 22,5 x 25 cm. 48 or. 15 €.

**Bidaia luzea** (euskera)
ISBN 978-84-9172-058-4. Autore liburuak.

**Un largo viaje** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-411-8. Obras de autor.

**Unha longa viaxe** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-410-1. MareMar.

**Un llarg viatge** (katalana)
ISBN 978-84-16804-56-6. Obres d'autor.

**Uma longa viagem** (portugesa)
ISBN 978-989-749-106-1. Obras de autor.

**Un viaggio diverso** (italiera)
ISBN 978-88-95933-86-3. Lettura autonoma.


*– Presta zaitezte, alde egin behar dugu-eta!*

*– Nora, aita?*

*– Ez dakit, baina hemendik urrutiko norabait.*

*– Zergatik?*

*– Jadanik gerra piztu delako.*

Hau aldi berean gertatzen diren bi bidaiaren istorioa dugu. Gertakizunak tartekatzen dira sentikortasun eta samurtasunez beteriko lan honetan; antzar amak eta bere txitek hegoaldeko lur epeletarantz egiten dute hegan. Bizkitartean, gerran dagoen herrialdetik hanka egin nahian, giza familia batek ihesari ekiten dio iparralderantz. Bi gertakarien narrazioak bat datoz bidaiari gazteen beldurra erronken aurrean islatzean: ibilaldia eta hegaldia galarazten dituzten erauntsiak, beste batzuekiko topaketak, janari eskasia, predatzaileak eta mafiak, nekeak dakarren adore falta eta, bestalde, helduek txikiengan piztu nahi duten konfiantza eta itxaropena. Eta azkenik erronkarik handiena: itsasoa zeharkatu, zer eta norabide desberdinekin bi ibilaldiak gurutzatzen direneko gunea.

Garai hauetan zeinen ezaugarri nabarienetariko bat errefuxiatuen drama dugun, Daniel Hernandez Chambers eta Federico Delicadoren lan ezinago egoki eta beharrezko honek hausnartzera bultzatzen gaitu begirada, aldi berean, samur eta gogorrarekin: samurra, gatazka baten alderik humanoena islatzen duelako, hegaztien metafora lagun; gogorra amaieragatik, errealite gordinarekin topatzera garamatzalako. Irudiak deskriptibo eta naturalistak dira – elementu zaindu sinbolikoak baztertu gabe- eta mezua azpimarratzen duten plastizitate handiko irudiak dira, emozioak sentiarazten dituztenak: tristura, gabezia, akidura... Eta hala eta gutiz ere, bakean eta askatasunean bizitzeko eskubidea duten milioika lagunen borroka, duintasuna, ametsak...




- **Gaia:** migrazioak.
- **Adin gomendatua:** 6 urtetik gora.
- **Nabarmentzeko modukoa:** Historia garaikidea; giza eskubideak; kronika.
- **Liburuaren lagina:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bidaia-luzea-eusk

### Daniel Hernández Chambers

*(Tenerife, 1972)*

Idazle eta itzultzailea, ingeles literaturan litzentziaduna Alacanteko Unibertsitatean. Hogeita hamar bat liburu argitaratu ditu. Honako sariak jaso ditu: «Juvenil Everest 2012», «Ala Delta de literatura infantil 2016» eta «Alandar de literatura juvenil 2017». «Gran Angular» sariaren finalista izan da 2004 eta 2007 urteetan. Haren lana «The White Ravens 2017» zerrendan dago.

### Federico Delicado

*(Badajoz, 1956)*

Universidad Complutense-n Arte Ederretan lizentziaduna. 1980an ekin zion lanari ikus-entzutezko materialak eta prentsarako lanak burutzen. Margo eta eskultura erakusketetan parte hartu du. Haur eta gazteentzako liburu ugari argitaratu ditu. Jaso dituen sarien artean, hauexek nabarmenenak: «Compostela Nazioarteko VII. Saria Album ilustratuari» IKARO lanagatik. Hau ere «The White Ravens 2015» eta «IBBY 2016 (irudiak)» zerrendan sartua da.








www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com